ELA LAB ESK STEE-EILAS

PRESUPUESTOS DE NAVARRA PARA 2005

# Continuistas, neoliberales y ANTISOCIALES

Los objetivos que el gobierno se plantea con los presupuestos para el próximo año se limitan a copiar la estrategia presupuestaria del estado, de déficit cero, en un escenario de:

- Reducción de la presión fiscal de los ingresos de capital y la tributación sobre los tramos de renta más altos.
- Crecimiento constante del pago al estado, vía aportación. En el año 2005, 464 millones de euros que no revierten en inversiones para Navarra.
- Crecimiento económico moderado. Que no ha sido aprovechado ni lo será en el próximo año para reducir la diferencia en protección social que nos separa de Europa.

El objetivo del déficit cero se pretende conseguir mediante una política restrictiva del gasto público, que ha pasado del 2002 al 2005 del 20,1% del PIB al 18,87%, lo que supone la reducción sistemática del papel del sector público de Navarra en la economía y la reducción del gasto social real.

Las consecuencias de esta política presupuestaria son:

- La desconvergencia social con Europa. No sólo no se avanza, sino que año tras año el gasto social en relación al PIB disminuye. Cuando no se garantizan los derechos sociales las grandes perjudicadas son las mujeres. Ellas tienen que correr con el exceso de trabajo que supone cuidar a las personas dependientes y a las niñas y niños sin escolarizar, y asimismo son quienes más sufren la pobreza.
- Mientras la previsión de gasto sanitario en la CFN es de 4,36%, en la Unión Europea es del 7%.
- En Educación se destina un 2,99%, mientras en la UE es el 5%.
- Estas partidas son netamente insuficientes para mantener la cantidad y calidad de los servicios y para abordar nuevas inversiones en sanidad, educación y servicios sociocomunitarios.
- Desconvergencia con la UE en presión fiscal, que ha pasado en el periodo 2002-2005 del 18,32% del PIB al 17,29%.

- La renta básica en Nafarroa sigue sin llegar siquiera al Salario Mínimo Interprofesional.

- La política de empleo en Nafarroa no existe, más allá del plan de empleo suscrito con CEN, CCOO y UGT, que no es más que la fórmula para repartirse dinero público.

- Nada sobre un Plan propio y transparente en materia de formación continua. Nada para una gestión adecuada de la políticas activas y pasivas de empleo en la CAN. Nada para reducir drásticamente la temporalidad y la siniestralidad laboral.

- Declaración de intenciones en lugar de medidas para la igualdad de género.

- Y mantenimiento, por parte del régimen, de la exclusión al sindicalismo abertzale.

- La inversión pública en Navarra cae por debajo del 3% del PIB.

- En una situación de absoluta dependencia de la economía Navarra del sector de automoción y las multinacionales, es incomprensible que por parte del gobierno no se impulse un plan industrial con suficiente dotación pública para favorecer la diversificación industrial, la cualificación y la inversión en sectores de mayor valor añadido y la participación sindical real. Navarra continúa en niveles de inversión en I+D casi un punto del PIB por debajo de la media europea.

- La reducción en un 26,38% de la partida destina al euskera supone un paso más en la exclusión de todo lo que significa la cultura y la identidad vasca.

**Por todas estas razones, rechazamos los presupuestos de Navarra para 2005 y la política fiscal que los acompaña. Nos oponemos rotundamente a la cada vez mayor privatización de los servicios públicos, la precarización de las relaciones laborales, en general, y en la administración pública, en particular, y exigimos del gobierno de Navarra y del parlamento navarro:**

- **El rechazo de estos presupuestos.**
- **Incrementar la renta básica al nivel del S.M.I.**
- **Salario Mínimo Interprofesional de 800 euros mensuales.**
- **Incrementar un 1% anual los gastos sociales hasta alcanzar la media europea.**
- **Recuperar la progresividad de la política fiscal.**
- **Dotación presupuestaria para la euskaldunización y normalización lingüística.**
- **Un Plan efectivo de política industrial y empleo.**
- **Políticas reales de igualdad de oportunidades.**
- **Construcción de un Marco de Relaciones Laborales y Protección Social que dé respuesta a las demandas de las trabajadoras y trabajadores navarros.**

***ELA LAB ESK STEE-EILAS***

ELA LAB ESK STEE-EILAS

## NAFARROAKO 2005EKO AURREKONTUAK

# Aurtengoen tankerakoak NEOLIBERALAK eta ANTISOZIALAK

Espainiako gobernuaren estrategia berbera darabil Nafarroakoak aurrekontuak direla-eta, hau da, zero defizita lortzea du helburu. Hona hemen zer testuingurutan ari den politika hori egiten:

- Gutxitu egin zaie zerga-presioa kapitalaren errentei, baita laneko errenta handienei ere.
- Etengabe hazi da Nafarroak estatu espainiarrari ematen dion diru-kopurua, ekarpenaren bidez (2005ean, Nafarrora batere inbertsiorik ekarriko ez duten 464 milioi euro ordainduko zaizkio Madrili).
- Hazkunde ekonomikoa, dezentekoa baina ez oso handia ere. Babes sozialari dagokionez Europarekiko dugun aldea murrizteko ez da baliatu hazkunde ekonomikoa, ezta datorren urtean baliatuko ere.

Zero defizita lortzeko, gastu publikoa murriztu nahi du Nafarroako Gobernuak: 2002tik 2005era, Barne Produktu Gordinaren % 20,1etik % 18,87ra jaitsi da gastu publikoa Nafarroan; beraz, etengabe murriztu dira sektore publikok ekonomian duen eragina eta gastu sozial erreala. Aurrekontu-politika horren ondorioak hauek ditugu:

- Politika sozialean, Europarekiko aldea handitzen ari da. Handitu beharrean, gutxitzen ari da, urterik urte, BPGrekiko gastu soziala. Emakumeek pairatzen dute gehienbat gastu sozialaren murrizketa, eurei egokitzen baitzaie gehienetan adineko senitartekoak, edo ezinduak, zaintzea, baita oraindik eskolara hasi ez diren haurrez arduratzea ere. Gainera, emakumeei erasaten die gehienbat pobreziak.
- Nafarroan, % 4,36koa izango da osasun-gastua 2005ean (aurreikuspena); Europako Batasunean, batez beste, % 7koa.
- Hezkuntzan, berriz, % 2,999koa; EBko batezbestekoa, % 5ekoa.
- Diru-kopuru horiek ez dira inondik ere nahikoa zerbitzuen kalitateari eta kantitateari eusteko, are gutxiago inbertsio berriak egiteko osasun- eta hezkuntza-alorretan eta gizarte-zerbitzutan.
- Zerga-presioari dagokionez, Europako Batasunetik urruntzen ari da Nafarroa: 2002-2005 epean, BPGren % 18,32tik %17,29ra jaitsi da.

- Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatara ere ez da iristen Nafarroan Oinarrizko Errenta.

- Enplegu-politikarik ez dago Nafarroan. Izan ere, Foru Gobernuak CEN, CCOO eta UGTrekin sinatutako ituna diru publikoa banatzeko formula baino ez da.

- Etengabeko prestakuntzari dagokionez, deusik ere ez Nafarroa bertako plan bat (gardena) eratzeko. Deusik ere ez, halaber, Nafarroan enplegu-politikak (aktiboak zein pasiboak) bultzatzeko. Deusik ere ez behin-behinekotasuna eta lan-istripuak gutxitzeko.

- Emakumezkoen berdintasunari dagokionez, asmo onak azaldu bai, baina neurririk batere ez.

- Azkenik, sindikatu abertzaleak zokoraturik edukiko ditu aurrerantzean ere Foru Gobernuak.

- BPGren % 3tik behera jaitsi da inbertsio publikoa Nafarroan. Automozio-sektorearen eta multinazionalen menpe dago, erabat, Nafarroako ekonomia. Hala eta guztiz ere, Foru Gobernuak ez du industriaren dibertsifikazioa bultzatzeko, langileen prestakuntza hobetzeko eta balio erantsi handiagoko sektoreetan inbertitzeko industria-planik sustatzen, ezta sindikatuen benetako partaidetzari ateak zabaltzen ere. Ikerkuntza eta Garapenari dagokienez (I+G), Europako Batasuneko batezbestekoaren azpitik jarraitzen du Nafarroak (BPGren ia puntu bat gutxiago).

- Euskarari dagokionez, berriz, % 26,38 gutxiago aurreikusten du 2005eko aurrekontuak. Beste urrats bat, bada, euskal kultura eta nortasuna baztertzeko politikan.

**Horregatik guztiagatik, ez dugu onartzen Nafarroako 2005eko aurrekontua, ezta horri dagokion zerga-politika ere. Ez gatoz bat, inolaz ere, zerbitzu publikoen pribatizazioarekin (gero eta nabarmenagoa), lan-harremanen ezegonkortasunarekin (batez ere administrazio publikoan), eta hau eskatzen diegu Nafarroako Parlamentuari eta Gobernuari:**

- **Ez onartzea aurrekontuak.**
- **Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren mailara igotzea Oinarrizko Errenta.**
- **Lanbide arteko Gutxieneko Soldata hilean 800 eurokoa izatea.**
- **Urtean % 1 igotzea gastu soziala, Europako batezbestekora iritsi arte.**
- **Zerga-politikaren mailakatzea berreskuratzea.**
- **Behar den dirua gastatzea euskalduntze-prozesuan eta euskararen normalizazioan.**
- **Industria- eta enplegu-plan eraginkorra eratzea.**
- **Aukera-berdintasuna egiazki bultzatzeko politikak abiaraztea.**
- **Nafarroako langileen premiei erantzuteko Lan Harreman eta Babes Sozialerako Nafarroako Esparrua eraikitzea.**

***ELA LAB ESK STEE-EILAS***